

GASTEIZEN ETA BILBON MINOR PROFESIONALIZATZAILEAK EGITEKO AUKERA 2021/2022

Lehen hezkuntzan eskaintzen diren lan irteera berezitua duten minorretan, akordio bat lortu da Hezkuntza eta Kirol Fakultatearen (HKF), Bilboko Hezkuntza Fakultatearen (BHF), eta Donostiako Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatearen (HEFA) artean, 4. maila Bilbon edo Gasteizen egin ahal izateko.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK:

- 2020/2021ean HEFAn Lehen hezkuntzako 3. maila egin izatea.
- 1., 2. eta 3. mailako irakasgai guztiak gaindituta izatea.

ZEIN DIRA AUKERAK:

- 2021/2022rako Bilboko Hezkuntza Fakultatean **HIRU PLAZA Musika Hezkuntza minorrean**
- 2021/2022rako Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultatearen **HIRU PLAZA Gorputz Hezkuntza minorrean.**

PROZEDURA

1. Lehen hiru ikasturteetako irakasgai guztiak gaindituta izatea.
2. **Lekualdatze eskaera egitea helmugako fakultatean** (Bilboko Hezkuntza Fakultatean edo Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultatearen) dagokion datetan (ekainaren 21etik uztailaren 2ra). Helmugako prozedura eta inprimakia erabili horretarako.
 - a. Eskaintza baino eskaera gehiago baldin badago, irizpidea ikaslearen espedientea izango da.
 - b. Lekualdatze eskaeraren erantzuna jasotzea.
 - c. Lekualdatze eskaera egin arren, ikasleak ez badu erantzunik jaso, ikasten ari den fakultatean dagokion egunean matrikula egitea komenu da, ez dadin matrikularik gabe gelditu.
 - d. Erantzuna baiezkoa bada, idazkaritzan burutu beharko du aldaketa prozesua.